



**Esp. kodea:** 2025PHLF0001

**Gaia:** Euskaltegiko irakasle bi, oposizio-lehiaketa

### **Merezimenduen egiaztagiriak aurkezteko epea**

Euskaltegiko irakasle biren hautaketa prozesuko oposizio aldiko azken proba uztailaren 27an egingo denez, epaimahaiak adostu du uztailaren 28tik abuztuaren 11ra bitartean (biak barne) merezimenduak aurkezteko epea irekitzea.

Soilik 2025eko uztailaren 23ra arteko merezimenduak baloratuko dira, eta hautaketa prozesuan parte hartzeko izena emateko unean alegatutako merezimenduak baino ez dira kontuan hartuko.

Arrasateko Udaleko [Eskaera orokor](#) bidez egin beharko da, eta honako agiri hauek soilik aurkeztu beharko dira:

- Eskaera orrian alegatutako esperientzia, Arrasateko Udalekoa ez bada.
- Erakunde ofizialetan emandako edo/eta jasotako prestakuntza ikastaroen egiaztagiriak, IVAPEkoak ez badira. Eta azken hamar urteetan eman diren ikastaroak besterik ez dira kontuan hartuko, horretarako erreferentziatzat hartuta prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkezteko azken eguna.

Bestalde, izena emateko eskaera orrian beste erakunde ofizialekin dokumentazioa egiaztatzeko baimena eman ez bada, alegatutako egiaztagiri guztiak aurkeztu beharko dira.

### IDAZKARIA

|                                                                                                                        |                                                                                                                                                 |              |                    |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------|--------------------|
| <b>Kodea</b>                                                                                                           | AG26/05340                                                                                                                                      | <b>Udala</b> | Arrasate/Mondragón |
| <b>CUDO</b>                                                                                                            | 000.0055.AAA1P9N9.N.58ci                                                                                                                        |              |                    |
| <b>URL</b>                                                                                                             | <a href="https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1P9N9N.58ci">https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1P9N9N.58ci</a> |              |                    |
| Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia. |                                                                                                                                                 |              |                    |



